

**2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION BARNE PROMOZIOKO MODALITATEKO OHIKO PROZEDURAREN BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIO IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIAREN AKORDIOA (2022ko URRIAREN 20ko EBAZPENAREN BIDEZ EGIN ZEN DEIALDIA).**

**ADMINISTRARIEN ESKALA. 8.5 OINARRI OROKORREAN AURREIKUSITAKO ZOZKETAREN DATA.**

---

III. eranskineko 8.5 oinarri orokorrak honako hau, deialdiari dagokionez, ezartzen du: *“Deialdi espezifikoko bakoitzeko azken kalifikazioa oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioen batura gehi euskara izango da...*

*Hautagaien artean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek ordena honetan aplikatuz erabakiko da hurrenkera:*

- 1) *Puntuaziorik handiena UPV/EHUko esperientzian, funtzionarioen edozein taldetan, karrerako funtzionario legez zein bitarteko funtzionario legez, edo edozein kategoria profesionaletan, lan kontratudun finko legez zein aldi baterako lan kontratudun legez, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 2) *Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 3) *Puntuaziorik handiena merezimenduen ataletako bakoitzean, deialdiko oinarrietan zehaztutako hurrenkerari jarraikiz, eta kontuan hartu gabe horietako bakoitzerako zehaztutako puntuazio mugak.*
- 4) *Oposizio fasean lortutako puntuaziorik handiena.*
- 5) *Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 27.2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia %40ren azpitik dagoen administrazioko kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.*
- 6) *Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenean artean UPV/EHUk egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.”*

Aipatutako lehen bost irizpideekin bi pertsonen artean berdinketa ebatzi gabe jarraitzen denez, beharrezkoa da seigarren irizpidean aurreikusitako zozketara jotzea.

Berdindutako pertsonak akordio honetako I. eranskinean ageri dira, beren puntuazioekin batera.

Azaldutakoaren arabera, hautaketa-prozesu honetako epaimahaia bilduta, eta adierazitako oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau erabaki du:

**LEHENENGOA.-** Zozketa bat egitea zortzigarren oinarrian adierazitako irizpideen arabera berdinketa ebatzi ezin izan duten hautagaien artean.

Zozketa ekitaldi publikoan egindo da 2024ko martxoaren 15ean, ostiralean, 10:00etan, epaimahaiaren egoitzan (Hautaketa eta Horniketa Zerbitzuan, Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandioko Eremuko Liburutegia Eraikineko bigarren solairua).

Zozketa egiteko, epaimahaiko kide batek bi hautagaien izenak dituzten txartelak aterako ditu. Txartel horiek aldeztatik sartu diren gutun-azal batetik aterako dira. Izangaiak bertaratu ahal izango dira.

**BIGARRENA.-** Horretarako gaitutako UPV/EHUko web-orrian eta UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea ([https://gestionenplegu.ehu.es/jobsite\\_g/euskera/generico\\_login.jsp](https://gestionenplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp)); kalifikazioaren I. eranskina kontsultatzeko.

**HIRUGARRENA.-** 7.4 oinarri orokorraren arabera, *“epaimahaiaren erabakien kontra egin ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa)”*, administrazio-bidea agortzen ez duen erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dakioke UPV/EHUko Gerenteari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsio hori UPV/EHUren egoitza elektronikoa, horretarako prestatutako UPV/EHUko erregistro-eremuko laguntza-bulegoetan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan aurkeztutako idazki baten bidez aurkeztu behar da.

Leioan, sinaduraren datan.

Epaimahaiko idazkaria

---

Deialdi espezifikora joateko esteka

- [Administrarien eskala Ohiko prozesua Barne promozioa](#)